

BERGARAKO UDALAREN ETA BADIHARDUGU ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA *EUSKARAREN GERRA OSTEKO HISTORIA SOZIALA* BERGARAN EGITASMOA ELKARLANEAN OSATZEKO.

Bergaran, bi mila eta hogeita bateko urriaren 20an

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Eta bestetik, Asier Sarasua Aranberri, Badihardugu Euskara Elkartearen lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate jaunaren aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ordezkatzeko duten entitateak ordezkatzeko eta behartzeko gaitasuna eta, hala, honakoa

ADIERAZI DUTE

- 1.- Badihardugu elkarteak hainbat urte daramatza Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea helburu duen Ahotsak proiektua garatzen. Proiektu horren barruan Badiharduguk 2020-2025 aldirako finkatutako helburu nagusia *1950-1980 hamarkadetako historia eta bizipenak* jasotzea da.
- 2.- Bergarako Udalak, bere aldetik, euskararen historia soziala jaso eta zabaltzeko egitasmoa bideratu nahi luke.
- 3.- Hala, beraz, bi entitateek interesgarritzat jo zuten bion helburuak aseko dituen elkarlan egitasmo bat bideratzea eta horren haritik lankidetzat hitzarmena sinatu zuten 2019ko abenduaren 17an. 2021era bitartean Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko hainbat lan egin dira herrian eta 2021ean orain arteko lana osatzea erabaki da.

Ondorioz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Badihardugu euskara elkarteak *Euskararen gerra osteko historia soziala* Bergaran egitasmoa gauzatzeko hainbat lan bideratuko ditu; zehazki hitzarmen honen eranskinean jasota datozenak, hitzarmena sinatzen denetik 2022ko urtarrilaren bukaera bitarte.



BIGARRENA: Bergarako Udalak **3.507 euroko** diru-laguntza emango dio proiektu hori burutzeko Badihardugu euskara elkarteari.

Diru-laguntza hori 2 zatitan emango da, era honetan: hitzarmena sinatzean %50 eta 2022ko urtarril amaieran %50. Azkeneko zatia ordaintzeko, aurrez ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuritze-agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARRENA: Horretaz gain, Badihardugu euskara elkarteak honako konpromisoak hartzen ditu:

a) Ekintzaren gaineko zabalkunde-oharretan Bergarako Udalaren laguntza jaso izana adieraziko du.

c) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

d) Bergarako Udalaren aurrean ziurtatu beharko du baldintza guztiak betetzen dituela, hala nola, diru-laguntza jasotzen duen zerbitzuaren jarduera eta helburua betetzen direla.

e) Udalak egin litzakeen ikuskarpenak erraztuko ditu.

f) Bergarako Udala jakinaren gainean jarriko du baldin eta Udalak diruz laguntzen duen jarduerarako beste diru-laguntzarik lortuz gero.

Beste diru-laguntzaren bat jasoko dela jakin bezain azkar jakinarazi behar zaio Udalari, eta, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.

g) Gutxienez bost urtez gordeko ditu jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak.

LAUGARRENA: Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso ahal izango da.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua.

BOSGARRENA: Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

SEIGARRENA: Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.

b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen


Badihardugu
Euskara Elkartia



**Bergarako
Udala**

erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bikoiztuta sinatzen dute.



Deba Ibarreko Euskera Elkartia

Asier Sarasua Aranberri

Badihardugu euskara elkarteko
presidentea



Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea



EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA BERGARAN

Bergarako Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak Bergarako ahozko ondarea biltzeko proiektua abiarazi zuten 2003an (ahotsak.eus/Bergara). *Bergarako Ahotsak* proiektuan erabilitako metodologia berarekin jarraituta, ildo berri bat jorratzeari ekin genion 2019an. 2021era bitartean Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko helburuarekin hainbat lan egin ditugu herrian. 2021ean proiektuari jarraipena ematea erabaki da eta 7 elkarrizketa berri egitea aurreikusten da. Honakoak izango dira egin beharreko lanak:

1. **Elkarrizketa berriak egin.** Euskara Batzordeko lantaldearen laguntzarekin aukeratutako 7 lekuko elkarrizketatuko dira.
2. **Elkarrizketak kodifikatu eta pasarteak sareratu.** Egindako elkarrizketa guztiak ohiko metodologia erabiliz kodifikatuko ditugu.
3. **Bideo-pasarteak sareratu.** Landutako zintetatik gutxienez 125 pasarte sareratzea aurreikusten dugu.

Laburbilduz, hauek lirateke **2021erako proposatutako lanak eta aurrekontua:**

7 elkarrizketa berri egin	1.316 €
7 zinta kodifikatu	1.316 €
125 bideo-artxibo editatu eta sareratu	1.750 €
% 50ko deskontua bideo-artxiboak editatu eta sareratze prozesuan	- 875 €
AURREKONTUA	3.507 €

BEZ-etik SALBUETSIA:

Badihardugu Euskara Elkarteari, eskaintzen dituen kultur zerbitzuengatik 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/92 Legea egokitzen duenak, 20.1.14 artikuluan jasotzen duen salbuespena aplikatzen zaio.

Eibarren, 2021eko irailean



**Badihardugu Euskara
Elkartea**
(943 12 17 75)
admin@badihardugu.eus
Deba Ibarreko Euskara Elkartia